



AGINDUA, 2020 URRIAREN 6KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA ARABAKO EGOITZA PRIBATUEN ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOEN SEKTOREAN KOMUNITATEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA 2020KO URRIAREN 7RAKO ETA AZAROAREN 11 ETA 25ERAKO DEITUTAKO GREBAN.

2020ko irailaren 25ean, ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek greba deitu zuten «Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen» sektorean, 2020ko urriaren 7rako eta azaroaren 11 eta 25erako, egun horietako bakoitzeko 0:00etik 23:59ra.

Deialdia egin zuten sindikatuen esanetan, grebaren arrazoia honako hau zen: «*probintzia-hitzarmenaren negoziazioa*».

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo «premia-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze

horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Jarduera-eremuari erreparatuz gero, Arabako egoitza pribatu eta etxebizitza komunitario guztietan deitu dute greba lau sindikatuk, ELA, LAB, CCOO eta UGTk; hots, sektorean gehiago ordezkariak dutenek. Gaur egun, 73 zentro dira (horietako bat publikoa, baina kudeaketa pribatukoa), eta guztira 2.361 plaza homologatu dituzte, horien artetik 1.856 okupatuta. Denbora-eremuari dagokionez, deialdiak 3 egun osotan edukiko du eragina, nahiz eta egun horiek ez diren ondoz ondokoak izango.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar baitituzte ziurtatuta beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla eta prebentzio-neurriak ezarrita, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizareratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ezin da alde batera utzi deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eta osasun- eta gobernu-agintariak hartutako neurri eta gomendioen ondoriozkoa dela. Beraz, kontuan hartu behar da 2020ko abuztuaren 19ko Agindua, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriari buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu hori 2020ko uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko aginduen bidez aldatu zen. Agindu horrek, 4.3. puntuan (Gizarte-zerbitzuetako zentroak, zerbitzuak eta establezimenduak) hainbat betebeharrak zehatz ezartzen ditu eremu honetan, egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuek eta eguneko zentroek bete behar dituztenak. Horren arabera, dagozkion antolamendu-, prebentzio- eta higiene-neurriak hartu behar dituzte, kutsatze-arriskuak prebenitzeko langileei, erabiltzaileei eta bisitariei dagokienez.

Kontuan hartuta zentro horietako erabiltzaileek kalteberatasun berezia dutela SARS-Cov-2k eragindako infekzio larrien aurrean eta heriotza-tasa altua pairatzen ari direla, eta aintzat hartuta transmisioa areagotu egiten dela inguru itxiotan pertsonen hurbiltasunaren eta harreman estuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren eraginak bereziki latzak dira kolektibo honetan.

Hori guztia dela eta, Osasun Sailak hainbat dokumentu egin ditu, zeinak etengabe berrikusten baitira, eta, dokumentu horietan, SARS-Cov-2 koronabirusaren aurrean egoitza eta zentro soziosanitarioetan aplikatu beharreko neurriak eta

gomendioak zehazten dira. Honako hauek dira, hain zuzen ere: Honako hauek dira, hain zuzen ere:

- Zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaindu eta kontrolatzeko protokoloa, 2020ko irailaren 22koa.
- IT-01 Egoitza geriatrikoetako eta beste zentro soziosanitario batzuetako garbiketa- eta desinfekzio-neurriak.

Deialdi honetarako zehazki, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzari sektore honen egoerari buruzko txostena eskatu zaio. Erantzunean, EAEn pandemiak duen egoeraren gaineko aipamen bat egiten da lehenik, eta arrisku bizian gaudela adierazten da bertan. Izan ere, EAEn, laukoiztu egin da 14 egunetan metatutako intzidentzia-tasa. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuak Babes Zibileko Plana (LABI) aktibatzeke eskatu zuen, horixe baita osasun-eta gizarte-erabakiak hartzeko organo errektorea, EAEko erakunde guztien partaidetzarekin eta Lehendakariaren zuzendaritzapean. Hala, organo horrek zerbitzu publiko eta pribatuen erabilera eta ondasunen kontsumoa mugatu edo baldintzatu ditzake, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen arabera. Abuztuko azken asteetan egon zen aktibazio horrek indarrean jarraitzen du, eta bilakaera egonkorra eta positiboa den arren, eutsi egin behar zaio, batez ere kolektibo zaugarri eta hauskortasun handikoentzako gailu, espazio eta baliabideetan, hala nola adineko pertsonen egoitza-zentroetan eta desgaitasunak dituzten pertsonen egoitza-zentroetan.

Adineko pertsonen egoitza-zentroen kasuan, osasun-agintariek emandako protokoloen eta arauen jarraipena egitean kontingentzia-planak aplikatzeko, ezinbestekoak dira neurri batzuk, tartean nabarmentzekoak: zentroen sektorizazioak; egoitzen antolaketa tratamendu-taldeen arabera; eta langileen politika, norbera babesteko ekipamenduen erabilera hedakorra aurreikusten duena, bere inplikazio guztiekin, eta langileen harremanak soilik dagokien taldera mugatuta.

Aurreko guztia kontuan izanik «Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen» sektoreko greba-deialdiari dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza-arretan, bat etorrita honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroeiei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege-Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak manu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986

epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; hala, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrekoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraikiz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak «ezinbestekoak» dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauetara jarraikiz. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendekotasuna duten pertsonak dira, zeinak osasun-gabezia larriak izaten baitituzte, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dute, arreta emateko bai haien autonomiari baita legeak onartu dien mendekotasun-mailari; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarrizkotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba-eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza-harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihurtzeko baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetzaren unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetzaren zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza,

prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beharagoentzako eguneko zentroak, 65 urtez goragoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikokoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonak egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarritzko jarduera batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolahi ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integral eta integraturako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonari ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, deialdi zehatz honetan, higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendekotasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

Egungo testuinguruan, osasun-agintariak egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan egin beharreko gomendioen artean sartu dituzte hainbat betebeharrak, lehendik egiten ziren funtsezko zerbitzuen artean sartu behar direnak. Zehazki, antolaketa-eredu berrietatik datozeinei buruz ari gara, tartean nabarmentzekoak sektorizazioa eta langileen taldeen araberrako banaketa. Gainera, erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzien kontrolarekin eta taldeko edo/eta banakako jarduerak egiteko moduarekin lotutako zeregin berriak sartu dira, bai eta egoitzen egoera klinikoaren gaineko kontrola ere (tenperatura kontrolatzea, sintomak behatzea, higiena areagotzea eta abar).

Kontuan hartuta pandemiaren egoera, lehen ere azaldu dugun bezala, eta osasun-gomendioak, xedatutakoa ezin da bete, baldin eta gaur egun arreta zuzena % 100etik beharago ehunekoan badago. Izan ere, zerbitzu horien erabiltzaileak kutsatze-arriskuan jarriko lirateke, azken hilabeteetan ikusi ditugun ondorioak eraginik.

Halaxe gomendatzen du, era berean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak bere idazkian, honako hau adierazten duenean:

Zerbitzu hauetako langileen kopurua murriztuz gero, ezin dira bete kutsatze-arriskua kontrolatzeko, prebenitzeko eta kalitatea bermatzeko neurriak, gorago azaldu direnak eta kontingentzia-planetan jasotzen direnak, zailtasun konpon ezinak sortzen baitira zentroa sektorizatze eta langileak multzo espezifikoetara esleitzeko orduan.

6) Baina, arreta zuzeneko zerbitzuez gain, zeharka horiei lotutako beste zerbitzu batzuk ere ematen dira, neurri txikiagoan bada ere (sukaldea, garbiketa, arropa-garbitegia...); badira, halaber, egoitzetako instalazio eta zerbitzuen koordinazioan, mantenimenduan eta segurtasunean laguntzen duten zerbitzuak ere. Aurreko aginduetan, zerbitzu hauen intentsitatea eta horiek egiteko langile-kopurua baxuagoak izan dira arreta zuzenekoak baino.

Hala ere, lehen ere adierazi dugun bezala, SARS-Cov-2 koronabirusak eragindako egungo egoeran, osasun-agintaritzek hainbat neurri eta gomendio onartu eta argitaratu dituzte, zeharkako zerbitzuekin ere lotuta, besteak beste garbiketarekin eta arropa-garbitegiarekin. Nahiz eta aurreko deialdietan zerbitzuon intentsitatea eta langile-kopurua baxuagoak izan diren, egungo egoera kontuan hartuta eta osasun-arloko neurriak eta gomendioak ikusirik, zeharkako zerbitzu horiek nabarmen areagotu behar dira.

Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua indartu behar da, osasun-agintarien neurrietan zehaztutako intentsitatea eta maiztasuna bete dadin; hau da, bereziki da nabarmentzekoa garbiketa-zerbitzua, eta zehazki, zentro guztiaren desinfekzioa. Hala, maiztasuna areagotu egingo da: txanda bakoitzean gutxienez garbiketa bat, erabilera komunean eta joan-etorri handiko guneetan garbiketa sakona egiteko, bai eta kontaktu gehien duten gainazal eta barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatueta, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makulueta eta abar.

Harrera eta atezaintzako zerbitzua ere zeharkako zerbitzuen barruan dago, eta zerbitzu hori ere indartu behar da. Izan ere, zentroetara egiten diren bisiten gainean ere egin dituzte gomendioak osasun-agintariek: bisita horiek mugatu dira, eta bertaratzen diren pertsonen datuak jaso behar dira; gainera, tenperatura hartu behar zaie bisitariei. Horrenbestez, ate nagusiko sarbidea zaindu eta kontrolatzeaz gain, zerbitzu honek egin beharreko zereginen artean sartzen da bisitak erregistratzea eta tenperatura kontrolatzea.

Azken irizpide horiek, bai arreta zuzenean, bai zeharkakoan, berdina aplikatu behar dira eguneko zentroetarako.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginei dagokienez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko orduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen konfigurazio berezia ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsoneri arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna. Eredu horretan, halaber, salbuespenezko egoeraren ondorioz, gutxienez ezarri ohi diren zerbitzuak indartu egin behar dira, osasun-agintaritzen gomendioak betetzeko. Kasu honetan, erabiltzaileen egoera klinikoaren kontrol handiagoa egin beharra dago, eta osasun-zerbitzuen erabilera kontrolatua egiteko gomendio orokorrak aplikatu behar dira. Ondorioz, langile horiek egin ohi dituzten lanak areagotu egin behar dira, osasun-agintaritzek egiten dituzten gomendioak betetzeko.

10) Elikagaiak prestatzeko sukalde-zerbitzua izango da, baina horiek, medikuak zehatz-mehatz hala preskribatu ezean, ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean prestatuko dira, eta erabili ondoren botatzen diren tresnak baliatuko dira, lan honetan ahalik eta denbora gutxien emateko protokolo edo metodologiaren arabera. Era berean, garbiketa-zerbitzuak behar bezalako higieena zaintzeko zerbitzuak dira, eta zeharkakoak izan arren, beharrezkoak dira. Bada, arlo honetan, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarrizko zereginak bete beharko dira, intentsitate baxuagoa ezarri arren.

11) Arropa-garbitzearen zerbitzuan, halakorik duten zentroetan, mihiseria guztia eta zerbitzuari dagozkion gainerako lanabesak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbituko da.

Zerbitzu hori, osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, indartu eta handitu egin behar da. Izan ere, koronabirusak eragindako egungo epidemia kontrolatzeko osasun-agintariek zehazten duten bezala, arreta berezia jarri behar da arroparen garbiketan. Ondorioz, arropa-garbitzearen zerbitzuak eman behar dituzten langileak % 90era arte areagotu behar dira, eta, hala, osasun-agintaritzek gomendatu duten bezala egin ahalko da zerbitzua.

12) Mantentze-lanetako zerbitzuak ezinbestekoak ez, baina oso lagungarriak izan badira greba honetan gutxienez hartutako gainerako zerbitzu eta instalazioen funtzionamendua egokia izan dadin. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragin dezaketen ezustekoei erantzuna eman behar zaie, komunitatearentzako funtsezko zerbitzuak bermatzeko.

13) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarrizko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarrizko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten eta greba egintzat har dadin.

14) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez indargabetu denak baina, hala ere, oraindik ere aplikagarria denak, azken horren lehen xedapen iragankorraren arabera) ezartzen ditu gizarte-baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lan-karga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihesta daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarrizko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

15) Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroak ere, zeinetan, oro har, langile gutxiago baitaude egoitzetan baino, antzeko kasuan daude; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, hain zuzen, langileei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, «greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarrizko izaerarekin. Gu ere bat gatzoz oinarrizko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan-jarduera, lanegun bat baldin bada».

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenera egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan). Horren harira, gobernuko agintaritzak honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariatz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduaz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarrizko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten

oinarrizko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealitate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela-eta, aipatutako testua nahikotzat jo zuen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri % 100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaieke greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraio biderik, erabiltzaileen mugakortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

16) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien guztirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte esandakoarekin bat eta guztia laburbiltze aldera, 2020ko urriaren 7rako eta azaroaren 11 eta 25erako deitutako greba gauzatzeko eskubidea baliatzea zilegi bada ere, pertsona kopuru jakin batek lanean jardun behar du «arreta zuzeneko zerbitzuak» emateko eta oinarrizko zerbitzu horiek emateko ezinbesteko diren beste jarduera batzuk gauzatzeko. Hori guztia ikusita, agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu Gobernuak, auzitan dauden eskubideen ezinbesteko edukia bateragarri egiten saiatzeko.

Puntu honetan kontuan hartu behar da Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzen sektorean lehendik ere deialdi honen antzeko beste batzuk ere egon direla, zeintzuen arabera ezarri baitira 2018ko irailaren 26ko, urriaren 19ko, azaroaren 22ko eta abenduaren 20ko aginduak; 2019ko otsailaren 18ko, martxoaren 28ko, apirilaren 26ko, maiatzaren 20ko, ekainaren 13ko, irailaren 16ko, azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko aginduak; eta 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko eta martxoaren 6ko aginduak. Horietako bigarrenaren aurka (2018ko urriaren 19koa), ELA sindikatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, pertsonen oinarrizko eskubideen jurisdikzio-babeseko prozedura bereziko izapideen zioz bideratua (873/2018 jurisdikzio-babesa). Prozedura hartan, kautela-neurriak eskatu ziren (108/2018 kautela-neurriak), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Atalak 2018ko azaroaren 6an emandako autoaren bidez ezetsi ziren. 2019ko azaroaren 22ko epaiaren bidez, ezetsi egin zen errekurtsoa.

Inguruabar horiek guztiak eta jurisdikzio-babeseko baliabideetan ezarritako epaiak (besteak beste 1288/2017 eta 873/2018) berariaz baloratu ziren, aurreko deialdietako gutxieneko zerbitzuak ezartzeko orduan. Aipatutako bigarren epaiak, aurrekoarekin lotuta, honako hau adierazten du: «Kontuan hartuta sektorearen berezitasuna nahiz zerbitzuen eta egoitzen hartzaileen berezitasuna, justifikatuta dago gutxieneko zerbitzuak finkatzeko orduan prebentzio-irizpideen arabera jardutea, Bizkaiko sektorearen greban Salaren hainbat aurrekaritan baloratu zirenak bezalako egoerak sor ez daitezzen. Egoera horiei buruzko epai guztien lekuko, Jurisdikzio Babeseko 1288/2017 Errekurtsoan ezarritakoa aipatzen dugu».

Gainera, gogoan hartu behar da ezen, grebaren ondorioz ukitutako eskubideak zaintzen ahalegintzeko asmoz, gutxieneko zerbitzuak egitera deitutako langileen ehunekoak aplikatzeko modua aldatu zela 2019ko maiatzaren 20ko Aginduen bidez —zeinak Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitzetan urte hartako maiatzaren 21etik 25era bitartean deitutako grebaren aurrean ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak arautzen baitzituen—. Agindu horretan bere horretan geratu ziren ezarritako gutxieneko zerbitzuen ehunekoak, horiek zenbatesteko modua aldatuta, eta eredu hori erabili zen gero 2019ko azaroaren 8ko eta abenduaren 11ko aginduetan, baita 2020ko urtarrilaren 10eko, otsailaren 6ko eta martxoaren 6ko aginduetan ere; eta agindu honetan ere, kalkulu-modu hori baliatu da.

Azkenik, kasu honetan, ondoz ondokoak ez diren 3 eguneko greba den arren, SARS-Cov-2 koronabirusak eragindako epidemiaren egungo egoerak bereziki ukitu duen sektore bati buruz ari gara.

Hori guztia dela eta, 2020ko martxoaren 6ko Aginduan ezarritako gutxieneko zerbitzuetako batzuk mantentzea erabaki da, eta hertsiki beharrezkoa den neurrian areagotzea, dagoen kontingentzia epidemikora egokitzeko eta erabiltzaileen eta langileen gaineko arriskua ahalik eta txikiena izan dadila bermatzeko.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira, funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek bermatu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta arlo horretan eskumen eskusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, nahiz Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharizanari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) 2. artikuluan Lan eta Enplegu Saila sortu du, eta haren 6. artikulua lan-harremanen arloko lan-legeria betearazteko eskumena esleitu dio. Bestalde, Xedapen Iragankor Bakarraren arabera, Azken Xedapenetatik Lehenean aurreikusitakoa betetzen den heinean, indarrean jarraituko dute Gobernuko Lehendakariaren eta Gobernuko Sailen egitura eta eginkizunak zehazten dituzten arau

organikoek. Ondorioz, indarrean jarraitzen du apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak. Sail horrek bere eginkizunen artean dauka, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetutako eskumenaren bidez, beharrezko neurriak zehaztea gizartearentzako funtsezko zerbitzuak mantentzen direla bermatzeko, zerbitzu publikoak emateaz edo beharrian atzera ezina edo aitortua asetzeaz arduratzen diren enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten grebetan.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- 1. «Arabako egoitza pribatuen eta etxebizitza komunitarioen» sektorean 2020ko urriaren 7rako eta azaroaren 11 eta 25erako 0:00etik 23:59ra bitartean deitutako greban langileek haien greba-eskubidea erabil dezakete, arreta zuzeneko zerbitzuak bermatzen diren heinean, zerbitzu horiek gutxieneko zerbitzutzat jo behar baitira, egoiliarren bizitza eta osasuna bermatzen dituztelako haien beharren arabera. Beraz, behar diren zerbitzuak emango dira egoiliarrak ohetik jaikiarazi eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta), osasun-asistentziarako (botikak, sendaketak...), baita oinarrizko higiene pertsonalerako, elikadurarako eta botikak banatzeko. Era berean, berariaz bermatuko da honako hauetan ezarritako gomendioak beteko direla: zentro soziosanitarioetan COVID-19a zaindu eta kontrolatzeko irailaren 22ko protokoloa, eta egoitza geriatrikoak eta beste zentro soziosanitario batzuk garbitu eta desinfektatzeko Instrukzio Teknikoa -01 (IT-01) —Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eginak eta I. eta II. eranskin gisa sartu direnak Agindura—, bai eta egoitza-zentro bakoitzak aurreko horiek betetzeko garatu dituen kontingentzia-planak ere. Era berean, arreta zuzeneko oinarrizko zerbitzuak ezarri dira gutxieneko modura.

2. Jarraian aipatzen diren langileek ondoren zehazten den moduan egin beharko dituzte jarduera horiek:

2.1. Oro har.

2.1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

- a)** Ehuneko 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.
- b)** Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten

dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikuak bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehenetsuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higiepertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, oinarritzko higiepertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian, erantsitako agirian jasotako gomendioak betez.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketean arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun-gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere. Hala, zentro osoa sakon garbitzen dela bermatu beharko da, desinfekzioa barne, eta garbiketa-lana areagotu egingo da erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan, nahiz kontaktu handiko gainazaluetan, besteak beste barandetan, eskubandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklaluetan, telefonoetan, tabletetan, gurpil-aulkietan, makuluetan eta abar. Txanda bakoitzean gutxienez behin egin beharko da garbiketa.

2.1.7. Arropa-garbitegiaren zerbitzuan lan hauek egingo dira: egoiliarren azpiko arropa garbitu eta lehortzea, eta arropa zapala garbitu eta lehortzea (maindireak, burkoak eta eskuoihalak).

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan, gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egin behar du txanda guztietan, arreta zuzena ematen duten heinean.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraio bideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen % 60 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori % 10 igoko baita. Gaueko txandan, gerokultoreen edo horien parekoen % 100ek lan egingo du.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira, bai eta osasun-agintaritzek prebentzio-gomendioak betetzeko ezartzen dituztenak ere, 1.1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen % 100 egongo da, egin ohi dituzten zereginen % 100 egiteko eta osasun-agintaritzek egin dituzten prebentzio-gomendioak betetzeko, 1.1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen % 50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen % 100ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira.

2.8. Arropa-garbitegiko langileak:

Normalean lan horretarako betetzen den lanaldiaren % 90ean emango da zerbitzua, agindu honen 2.1.7. apartatuan azaldutako zereginak egiteko.

2.9. Mantentze-lanetako langileak:

Jaiegunetan egoten den langile kopuru berdina egongo da, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

2.10. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egongo da txanda bakoitzean, eta berau arduratuko da bisitak erregistratzeaz eta bisitarien tenperatura hartzeaz. Kontrol horretan sartuko dira bai erabiltzaileak, bai bisitak, osasun-gomendioetan ezarritako mugak bete daitezten.

Bigarrena. - Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena.- 1. Agindu honen 2.1.3. zenbakian ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da zer langilek bete behar dituzten zerbitzu horiek.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxienezko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan

nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira. 24 ordu lehenago jakinaraziko diote sindikatu-ordezkaritzari norik bete behar dituen eginkizun horiek.

Laugarrena.- Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 6a

Idoia Mendia Cueva

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**